

# Keatsen barne-muinetan

Edertasun absolutua atzeman nahi zuen poetaren gutun bilduma kalean

**J**ohn Keats poeta Ingelesaren gutun bilduma kaleratu berri du frantsesez Belin argitaldaria. Robert Davreu poetak ingelesetik itzulitako korrespondentziak erromantizismo ingelesaren ohorezko ordezkari honen sentimenduak agertzen ditu, baita edertasuna atzemateko desioa ere.

## DONOSTIA


Kasu askotan idazle handi baten eskutitzen bidez pertsona bihurtzen zaigu olerki, eleberri edo entseien atzean ostentzen den izena. Gizakia lagun bilakatzen zaigu nahigabe haren arimaren zirrikituetan barrena sartzeko posibilitatea eskaini digulako. Halaber, jekuaren garaipena lardatzen dugu, artista bera bizitzaren gora-beheren eta kolpe guztien gainetik gailendu baita garaikide eta ondokoei bere sentimenduen testigantza oparitzeko.

Baina, sorkuntzaren beste zenbait ataletan bezala, honetan ere badira arriskuak. Nola hartu, bestela, Proust-en gutunak biltzeko behar izan diren 21 aleak? Ez al da perilosoa izaten—kasu honetan behintzat— gizonari idazlearen mamia azaltzen uztea, bere barrua adierazteko sobe-razko baimen eta begirunea eskaintzea?

Dena ez da halakoa izaten. Gaitzerdi! Badira beste karta batzuk, obra oso baten laburpenzat ederki asko jo daitezkeenak. Horra hor, esaterako, Voltaire, Flaubert, Kafka, Rilke. Eta John Keats.

Idazle ingelesaren korrespondentzia oraintsu eman da argitara frantsesez Robert Davreu-k itzulirik. Poeta frantses honek nabardura guztiekin moldatu ditu Keatsen letrak, zenbait kritikariren ustetan ereduak izan litekeen molde ezin zehatzagoan. Ortografia berezia nahiz puntuazio zeinuen erabilera gurarizkoa dira, besteak beste, honen adierazgarri. Eta hau guztia beharrezkoa zen, gutunei darien 'arnasa' honetan baitatza, hain zuzen ere, poetaren pentsakera, jokamolde, gogoeta eta erreakzioen ulerbide nagusietakoa.

Honelaxe atzematzen da Keatsen fitsik joaten ez uzteko, ez



John Keats idazlea, William Hiltonek egindako koadro batean.

galtzeko bere baitan zeukan irrika, izar iheskoraren dirdira harapatzeko desioa, bere barruan pizten den izpirik ttipienaz ere jabetzeko agertzen duen grina, lipar batez azaldu ondoren kolpetik amatatuko dena. Keatsen, poesian zein kartetan, bere egin nahi du Izpiritua —maiuskulaz— berau gutxien espero den unean eta anitzetan nahikeriaren menpe mugitzen dela jakinik.

Idazlearen epistolarioa poesia,

filosofia eta teologiaren artean kokatzen da, hark berak umorez adierazi zuenez. Helburua, «intelektoaren eta honen milaka materialen artean osatzen diren konposizio eta dekonposizioak argitzea, Edertasunaren beraren jaiotzaren aurretik».

## ERROMANTIZISMO INGELESAREN EREDU

John Keats jatorri xumeko familia jaio zen Londresen 1795.

## Zirkunstantziek moldatuta

### JOHN KEATS

*John Keatsen argitaratu gabeko obrak eta epistolarioa 1848. urtean irten ziren kalera estreinakoz. Gutun hauetan bizitza eta gizakiaren esentziaz mintzo da sarri poeta. Hona hemen, adibide gisa, 1819. urteko otsailaren 14a eta maiatzaren 3a bitartean idatzitako eskutitzaren zati bat:*

**H**asi naiz jabetzen gizakia bere zirkunstantziek moldatuta dagoela. Eta zeintzuk dira, bada, zirkunstantzia hauek, bere bihotzeko ukitu harriak ez badira? Eta zeintzuk dira, bada, ukitu harri hauek, bere bihotzarentzako probak ez badira? Eta zeintzuk dira, bada, bere bihotzarentzako proba hauek, bere natura aldatu eta azkartu egiten dutenak ez badira?

Eta zer da, bada, aldatzen den natura hori, bere arima ez bada? Eta zer zen, bada, bere arima hura mundura sortu eta proba, aldaketa eta hobekuntza horiek jasan aitzin? Nortasunik gabeko adimena. Eta nola, bada, osatu da azkenean nortasun hau? Bihotzaren bidez? Eta nolatan bihurtu da bihotza bitartekari, zirkunstantzi- mundu baten bidez izan ez bada?

✓ Idazlearen epistolarioa poesia, filosofia eta teologiaren artean kokatzen da, hark berak umorez adierazi zuenez.

urtean. Bederatzi urte zituelarik aita hil zitzaion eta ama bigarrenez esposatu zen ondoren. Andre hau tuberkulosiak jota hilgo zen, bere bi seme-alabetako bi—Tom eta John bera—hilobira eramango zituen eritasun beraren ondorioz. John gaztea Medikuntza ikasteari lotu zitzaion 1815. urtean eta botikario aritzeko behar bezalako ezagutza lortu zuen arlo honetan.

Baina poesiak txiki-txikitandik tiratzen zuen eta idazleak bereak eta bost egin zituen jarduera literarioa ez zen orotik libre izateko. Halatan, 1817. urtean lehen olerki bilduma argitaratu zuen, ia oharkabean pasatu zena. Urtebete geroago 'Endymion' poema narratiboa kaleratu zuen. Lan honi esker iritsi zitzaion errekonozimendua, hasiera batean kritika ugari jaso zituen arren.

Lehenago ama eta anaia bezala, Keats tuberkulosiz gaixotu zen eta lagun baten etxera joan zen sendatzera. Bertan—Londresko Hampstead-en— auzoko baten alabaz maitemindu zen—Fanny Brawne— eta bere poemarik ederrenak osatu zituen. Lan hauek 'Lamia and other poems'—'Lamia eta beste poema batzuk'—alean bildu zituen. Liburu honek Grezia eta Erdi Aroko olerkiak zituen.

Keatsen osasunak okerrera egin zuen eta lan hau argitaratu eta lasterrera Napoles-erantz jo zuen eguraldi onuragarriagoaren bila. 1820. urteko iraila zen. Hilabete batzuk geroago Erroman hil zen eta bertako hilerri protestantean lurperatu zuten. Mende laurdén bat pasatxo besterik ez zuen. Epitafioan hark berak idatzitako hitzak ezarri zituzten: 'Hemen baten bat datza, haren izena uretan idatzi zena'.

Keats erromantiko britainiarren arteko onenetarikoak izan zen eta, bizitza laburra izanik ere, bere obra poesia ingelesaren ohorezko lekuan dago. Gardentasun handiko lirika zuen eta haren sonetoetan edertasun absolutua osatu eta gozatu nahia islatzen da.

## LABURREAN

### ESTATU BATUETAKO zinemagintzak 5.030 milioi dolar jaso ditu

Estatu Batuetako zinemagintzak orain arte ezarritako marka ekonomiko guztiak ondu zituen iaz eta 5.240 milioi dolar eskuratu zituen, orain dela bost urte baino 200 milioi gehiago. 'Jurassic Park' filmeak jaso zuen diru gehien (339 milioi dolar) eta ondoren, hurrenez hurren, honako hauek ageri dira: 'The Fugitive' (179,3), 'The Firm' (158,3), 'Sleepless in Seattle' (126,2), 'Miss Doubtfire' (102,9), 'Aladdin' (166) 'Indecent Proposition' (102,9) eta 'In the line of the fire' (102,2) ●

### PICASSOREN margoak kalte ugari izan du

Joan den azaro hasieran Suedian lapurtu eta oraintsu berreskuratu duten Pablo Picassoren hiru koadroetako batek kalte ugari ditu, Bjorn Springfeldt Stockholmeko Museoko zuzendariak adierazi duenez. Artelan horrekin bat, Picassoren beste lau koadro eta eskultura bat eta Georges Braqueren beste bi margo lapurtu zituzten. Ustez lapur horietako hiru atxilotuta daude ●

### PARAMOUNTEN argitaldaria aleman bat erosi du

Alemaniano Markt & Technik Verlag Ag izeneko argitaldaria zati bat erosi du Paramount enpresa estatubatuarra. Enpresa honek ez du, orain arte, ingelesa ez den beste hizkuntza bateko argitaldaririk inoiz erosi, eta bere helburua enpresaren zabalkunde estrategia nazioartera eta beste hizkuntzetara hedatzea da ●

### GONZALO Suarezek pelikula berri bat filmatu du

Gonzalo Suarez zinemagile espainiarrak 'El detective y la muerte' pelikularen filmaketan lanak amaitu ditu aste honetan. Filmea misterio eta liluraz betetako fabula da eta maitasun, gorroto, polizi eta heriotza istorioak tartekatzen ditu narrazioan ●



## IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm

EGUN BAT 550 pta/18 l  
ASTEBETE 2.750 pta/91 l  
BI ASTE 4.600 pta/154 l  
HILABETE 7.150 pta/238 l

31 x 15 mm

EGUN BAT 1.100 pta/36 l  
ASTEBETE 5.400 pta/179 l  
BI ASTE 9.400 pta/315 l

31 x 33 mm

31x33  
MODULO

EGUN BAT 2.200 pta/74 l  
ASTEBETE 10.700 pta/357 l  
BI ASTE 18.900 pta/630 l  
HILABETE 26.250 pta/875 l

31 x 33ko  
BI MODULO

EGUN BAT 4.400 pta/147 l  
ASTEBETE 21.400 pta/714 l  
BI ASTE 37.800 pta/1.260 l  
HILABETE 52.500 pta/1.750 l